BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2043

AGINDUA, 2012ko martxoaren 23koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena. Honen bitartez, ingurumena babestera zuzendutako inbertsioak egiteko enpresei emandako diru-laguntzen inguruan 2010eko ekitaldirako deialdia erabakitzen duen Ingurumeneko sailburuaren 2010eko abenduaren 30eko Ebazpena aldatzen da.

Gertakariak: urriaren 19ko 260/2010 Dekretu bidez, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko, enpresentzako diru-laguntzen banaketa egitea erregulatzen da.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko urriaren 20ko Aginduaren bitartez, urriaren 19ko 260/2010 Dekretu horretan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia aurkeztu da 2010. ekitaldirako.

Ingurumeneko sailburuordearen 2010eko abenduaren 30eko Ebazpenaren bitartez, urriaren 19ko 260/2010 Dekretuan aurreikusitako 2010eko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia erabaki zen.

2010eko abenduaren 30eko Ebazpen horren I. eta IV. eranskinean dirulaguntza jaso duten enpresen zerrenda, dirulaguntzen zenbatekoa eta zein proiektu burutzeko diren jasotzen da eta II. eta V. eranskinean dirulaguntza eskaria ukatua izan duten enpresen zerrenda eta ukapen horren arrazoiak agertzen dira.

Ingurumen sailburuordearen 2010eko abenduaren 30eko Ebazpenaren aurka, urriaren 19ko 260/2010 Dekretuan aurreikusitako 2010eko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia erabaki duena, bost gora jotzeko errekurtso jarri dira, epe barruan denak. Horietatik, sailburuak bi onartu ditu, 2011ko irailaren 12ko Aginduaren bitartez.

Bridgestone Hispania SA eta Aceros Inoxidables Olarra SAU enpresek jarritako gora jotzeko errekurtsoak onartzen dituzten Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren aginduetan Balorazio-epaimahaia berriro eratzeko agindua ematen da, aipatutako enpresek aurkeztutako eskaria aztertu eta baloratu dezaten.

2011ko irailaren 23an Balorazio-epaimahaia eratu da urriaren 19ko 260/2010 Dekretuaren 14. artikuluaren arabera, eta aktan honako akordioa jasotzen da: Ematea ondorengo enpresek aurkeztutako proiektuei ondorengo dirulaguntzak: Aceros Inoxidables Olarra SAU: 19.992,52 euro eta Bridgestone Hispania SA: 10.134,78 euro.

Hori guztia dela eta egoki da urriaren 19ko 260/2010 Dekretuan aurreikusitako 2010eko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia erabaki duen Ingurumen sailburuordearen 2010eko abenduaren 30eko Ebazpena aldatzea, horren I eta II. eranskinak aipatu gora jotzeko errekurtsoak onartzen dituen Aginduetan jasotzen den bezala Balorazio-epaimahaiak egindako balorazio berrira egokitzeko.

Ikusita ingurumena babestera zuzendutako inbertsioak egiteko enpresei diru-laguntzak ematea erregulatzen duen urriaren 19ko 260/2010 Dekretua batetik; aipatutako urriaren 19ko 260/2010 Dekretu horretan aurreikusitako diru-laguntzak jasotzeko 2010 ekitaldirako deialdia ezartzen duen Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2010eko urriaren 20ko Agindua, bestetik; urriaren 19ko 260/2010 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen

2010eko ekitaldirako deialdia erabakitzen duen Ingurumen sailburuordearen 2010eko abenduaren 30eko Ebazpena bestetik; Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua bestetik; Administrazio Publikoetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Arruntaren azaroaren 26ko 30/1992 Legea bestetik, eta orokorrean aplikatu beharreko gainerako arauak,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2010eko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia erabaki duen Ingurumen sailburuordearen 2010eko abenduaren 30eko Ebazpena aldatzea, dirulaguntza jasotzen duten proiektuak jasotzen dituen I. eranskinean ondorengo proiektu eta kopuruak gehituz:

Enpresa	Proiektua	Zenbatekoa
Aceros Inoxidables Olarra SAU	Altzairu herdoilgaitz biribilkientzako desugerketa automatiko linea	19.992,52
Bridgestone Hispania SA	Bihurritzeko makina berriak jarriz zarata eta hondakinak ezabatzea	10.134,78

Era berean, II. eranskina aldatu, onartu ez diren proiektuei dagokiona, hain zuzen, Bridgestone Hispania SAk aurkeztutako proiektu hori kentzeko.

Bigarrena.– Bridgestone Hispania SA eta Aceros Inoxidables Olarra SAU enpresei Ebazpen honen edukia jakinaraztea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitaratzea, dirulaguntzak emateko jardunbide orotan egon behar duen jakinarazpen printzipioa betetzeko.

Laugarrena.– Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da IngurumeN, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera; bestela ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 23a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.